

oro korra



S i n d i k a | H e z i k e t a

1.

Euskal Herria- Espainiar estatuaren arteko gatazkaren analisi

LAB
Hezkuntza

ZA
BAL
TZEN

Zbkia

SHK 00001

DOKUMENTAZIO
ZENTROA

1.

**Euskal Herria -
Espainiar
Estatuaren arteko
gatazkaren
analisi.**

1. Euskal Herria - Espainiar Estatuaren arteko gatazkaren analisisa.

Moduluaren programazioa eta helburuak.

Modulu hau egun batean zehar garatuko da. Ezinbestekoa da koadernotxoan aldez aurretik irakurrita edukitzea, baita beronen eztabaidan aktiboki eskuhartzea ere, lanaren planteamendu orokorrari zein partikularrari buruzko ezbaiak, desadostasunak, ekarpenak eta abar planteatuz. Helburuak ondoko hauek dira:

- Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko gatazka politikoaren kausei buruzko eztabaida zabaltzea eta konklusioetara heltzen saiatzea.
- Auziaren gakoa edo gunea aztertzea.
- Borroka politikoaren metodo ezberdinei eta euron ondorioei buruz gogoeta egitea.
- Gatazkaren irtenbideari begira gure ekarpena zein izan daitekeen hausnartzea.

Idatzi: **Xabier Onaindiak**

Editatu: **Ipar Hegoa Fundazioak**

ipar•hegoa



1.

oro korra

SINDIKAL HEZIKETA

Euskal Herria Espainiar Estatuaren arteko gatazkaren analisisia.

Gatazkaren jatorriak eta kausak

Azken 150 urteak
Subiranotasun gatazka

Gatazkako bi alderdiak

Gatazka politikoa
Euskal herria gatazkaren aurrean

Autodeterminazio eskubidea, bizitzeko eskubidea

Giza eskubide indibidual eta kolektiboak
Biolentzia erabiltzeaz
Biolentzia erabiltzearen gaitzespenez
Beste gaitzespen mota batzuk
Gaitzespenen baliagarritasunaz

Euskal gatazka eta demokrazi defizita

Demokrazia formala eta gatazka
Herrienganako eta bakearekiko begirunea
Defentsazko biolentzia
Eskubide demokratikoak eta estatu espainiarra

Euskal herria biolentziaren aurrean

Galdera eta erantzun interesatuak
Sistemaren biolentzia

ERANSKINA:

Espainiako Konstituzioa
Giza eskubideen deklarazio unibertsala


MODULUAZ GALDEKETA

HITZ ZERRENDATXOA

1. Euskal Herria - Espainiar Estatuaren arteko gatazkaren analisia.

Ezinbesteko da edozein ekintzaile sindikalentzat nahiz kezka politikorik duen edozein pertsonarentzat jasaten dugun gatazkaren jatorrietan eta kausetan sakontzea, zeren, horretaz egiten duen gogoetaren arabera, ateratzen dituen konklusioak behin-betiko baldintzatuko baitute, hasi abaguneari buruzko analisitik eta proposatuko dituen irtenbideetaraino.

Jar dezagun adibide bat: gatazka hau berria dela ematen badugu, 35 urtetik honanzkoa baino ez dela -arazoa arbitrarioki piztu zuen ETArekin sorretatik honanzkoa, alegia-, ez dela, beraz, lotura historikorik, zio politikorik gabeko terrorismo arazoa besterik ez dela, orduan justifikatua liteke konponbide polizial huts eta zorrotza, ETArekin bukatuz arazoa ere bukatua litzateke-elako. Aitzitik, gutxienez azken 150 urtetan zehar gerra eta errebolta bortitz ugari izan dela aztertzen badugu, badela haien arteko hari eroale bat, badirela haiek sortarazi zituzteten erro sakon batzuk, orduan adimen-ahalegin handixeagoa jarri beharko da gatazkari irtenbide bat aurkitzeko.



Gatazkaren jatorriak eta kausak.

Historiari begirada labur bat.

Sarreratik bertatik ondorioztatzen da historiari begiratu beharra, eta, txosten honen xedea kontuan hartuz, begirada laburra izan beharko du nahitaez. Euskal Herriko Hegoaldea hartuko dugu gatazkaren esparru behingoenzat, nahiz eta hortxe dakusagun Bidasoa hemendiko zein handiko euskaldun anitzen borondate positiboa birbateratzearen alde.

Esan dezagun bide batez 1512az geroztik baizik ezin dela hitz egin doitasunez "Espainiaz", orduantxe inbaditu baitzuten gudaroste gaztelarrek, aitasantuaren bulda faltsutu baten aitzakiaz eta armen indarrez, ordurarte Euskal Herriko (E.H.) lurraldea batipat mendean izan zuen Nafarroako Erreina. Hala ere, subiranotasun maila garrantzitsua kontserbatu genuen beste 300 urte baino gehiagotan.

Azken 150 urteak.

Baina oraindik beharrezkoago deritzogu azken 150 urteak aztertzeari, gure herriaren historian denbora-tarte laburra delako eta bitarte horretan eratu direlako



gaur egun ezagutzen ditugun Estatu edo Nazio-Estatu gehienetsuak.

1839an amaitu zen, Bergarako Besarkadarekin, Lehen Gerra Karlista. Liberal garaileek Estatu osoko legeria bakar baten beharra zeukaten beren ekonomi eredia garatu ahal izateko, eta horrek gurtzat umiliazioa eta Probintzi Diputazioen inposaketa ekarri zuen, Batzar Nagusien eta Foru Diputazioen orde; Guardia Zibilaren eta Madriletik izendaturiko jujeen ezarpena; merkatal Aduanak ordurarte zeuden lekutik, Ebroaldetik, "Frantziako mugaraino" lekualdatzea.

1876an Bigarren Gerra Karlista galdu eta Foruen Abolizio Legea datorkigu ondorioz, Espainiar Ar-

1939an Gerra Zibila amaitu eta Estatutuaren eta Kontzertu Ekonomikoen galera dalar ondorioztat. Bizkaia eta Gipuzkoa probintzia traidore deklaritzen dituztelarik.

1. Análisis del conflicto Euskal Herria - Estado español.

madan derrigorrezko Soldadutza eta Estatuari Kontribuzioak ordaindu beharra ezartzen zaigularik.

1939an Gerra Zibila amaitu eta Estatutuaren eta Kontzertu Ekonomikoen galera dakar ondoriotzat, Bizkaia eta Gipuzkoa probintzia traidore deklaritzen dituztelarik.

Gerren artean etengabeko altxamendu eta albaramenduak gertatu ziren beti (Matxinadak, Gamazada) eta ezin da egiatan bakeaz hitzegin, Francoren Bakea -hau da, menperakuntza eta errepre-sioa- baketzat hartzen ez badugu behintzat.

1958an ETA sortzen da, panorama politikoa erro-errotik aldatuz eta xede abertzaleengatik borroka biltzen duen ardatz bihurtuz orduz geroztik, indar politikoak oro baldintzatu eta birkokarazten dituelarik gatazkaren konponbidean edota enkistatzean jokatu behar duten eginkizunaren aurrez aurre.

Subiranotasun gatazka.


Gatazkaren definizio bat eman behar izanez gero, hau SUBIRANOTASUN GATAZKA bat dela esango genuke, labur esateko. Azken 150 urteetan Monarkiak (Isabel II, Alfonso XII eta XIII, Juan Carlos I), Errepublikak eta Diktadurak (Primo de Rivera, Franco) jasan ditugu, erregimen horietariko ezeinek ere ez digularik utzi subiranotasun maila apalenera iristen: beste herri batzuekiko berdintasun ju-

ridiko-politikoa bermatzeaz gain, komunitate berezitu gisan bizirautea (ikus urte horietako euskararen bilakaera erregresiboa, lurraldearen zatiketa...) ahalbide diezagukeen subiranotasunera, alegia.

Aipaturiko erregimenok euren artean horren desberdinak izanik ere, bat datoz honako honetan: euskaldunekiko politika zentralista eta jakobinoan, alegia. Egun ere, ezarri berri zaigun erregimenak (Autonomien Estatuak) nolabaiteko deszentralizazioa eta botere-eremu batzuen kudeaketa baimentzen badu ere, E.H.-aren lurralde-zatiketak irautearen baldintzapean eta egiazko subiranotasunerako bidea itxita mantentze-aren truke da.

Beste herri batzuek beren subiranotasuna eta adin nagusitasuna erdiesten zuten bitartean, guk historiaren trena igarotzen ikustea besterik ez dugu izan eta ez digute utzi tren horretara igotzen, ezer-gatik ere, egin ditugun saio bakes-tsu zein bortitz guztiak egin arren. Ikuspegi askotatik azter daiteke etapa historiko hau, baina hauxe da egia: gerra guztietan gure subiranotasun-adierazpideak defendatzera irten (Foruak, Kontzertu Ekonomikoak, Estatutua...) eta galdu egin genituela. Horiek galdu baldin baditugu, horixe zela jokoan zegoena esan gura du, horixe dela auziaren gunea, alboko gertakariak, sarri askotan ikuspegia lausotzen dutenak ere, hortxe izan arren. Horrexegatik diogu gure hau Subiranotasun Gatazka bat dela, askatasun demokratikoen, herri-eskubideen gatazka.

Nahiz eta nohizbehinka ikusmena iluntzen duten inguruko gertaerak egon, gatazka hau jabetasunaren gatazka da.



Zeintzuk diren gatazkako bi alderdiak

Gatazka politikoa.

Gatazka politikoaz mintzatzean, interes kontrajarriak dituzten bi parte edo alderdi diren prozesu baten aurrean aurkitzen garela esan nahi dugu; alderdi bataren interesak gauzatzeak beste alderdiaren interesetan duela eragina; alderdi batak zenbait eskubide dituela beste alderdiak utzi ezin dizkionak, boterean edo eragipenean amore eman gabe.

Aztertu dugun epealdi horri buruz, historialariek, soziologoek, antropologoek... gatazkako alderdi desberdintsuez mintzatuko zaizkizu. Batzuentzat baserriaren eta hiriarren arteko gatazka dago, beste batzuentzat interes dinastikoen gatazka, zaharraren eta berriaren arteko gatazka, konfesionaltasunaren eta laizismoaren artekoa, errepublikaren eta faxismoaren artekoa, edota klaseen arteko gatazka. Eta egia da aldagai horietariko bakoitzak bere eragina izan duela, handiago edo txikiagoa une batean edo bestean, baina horietariko ezeinek ere ezin esplikatu dezakeela berak bakarrik epealdi guzti hori, eta are gutxiago oraingo epealdi hau.

Hari eroale bat behar du hor, auziaren gunea, gatazka hainbat



urtetan zehar zergatik dirauen esplikatzeko duen soluzionatugabeko zerbait. Lehenago definitu bezala, gure hau Subiranotasun Gatazka baldin bada, gunea horrexetan datzala uste dugulako da, bere bi alderdiekin: bata eskubidez dagoen subiranotasuna galdatzen, eta bestea subiranotasun hori ukatzen. Hots, batetik Euskal Herria, bere eskubide guztiekin historian sartu nahian, eta bestetik Espainiako eta Frantziako Estatuak, eskubide horien egikaritzea eragotziz, indarrean dagoen sistema kapitalistaren babesaz.

Ez gataz bat, sistemaren alokairupean egonik, gatazka hau euskaldunen artekoa dela teorizatzen dutenekin.

1. Euskal Herria - Espainiar Estatuaren arteko gatazkaren analisisa.

Euskal Herria gatazkaren aurrean.

Horregatik, ez gatoz bat gatazka hau euskaldunen artekoa dela teorizatzen duten sistemaren soldatapeko batzuekin, liskar zibilar bide eman diezaiokeen ziri bat sartuz horrela eta euren tesia - "enfrentamendua" benetan ere euskaldunen artekoa dela- berrelikatua ikusteko, eta horrela infinituraino, inora ere ez daraman zirkuluan jirabiran jardunez. Euskaldunok ezin diogu geure buruari subiranotasuna eman, hori ez dago gure eskuetan eta, beraz, ezin ditugu geuk geuretara osatu gatazkako bi alderdiak. Euskal herritarren artean bada klase borrokarik, lurraldeen arteko eta belaunaldien arteko borrokarik, kultur borrokarik... gainerako herrietan gertatzen den bezala, baina auziaren guneari dagokionean ez dugu gure arteko gatazkarik: ez dagoelako geure esku, baizik eta gugandik harago.

Jakina erlatibizatu beharra dagoela eta ezin dela esan euskal herritar guztiek nahi dutela subiranotasuna edota espainiar guztiek ukatzen dutela Autodeterminazio Eskubidea. Badakigu euskaldun asko, banako gisan, oso eroso sentitzen zirela Francoren garaian eta beste askok ez duela jomugatzat gaur egun dugun baino autonomia gehiagorik; eta badela talde hazi bat espainiar edo frantziar sentitzen dena; baina bada baita ere sektore handi bat komunitate bereziaren kontzientzia eta autodeterminatzeko borondate politikoa duena, eta, Herria 2000-ak ondo

dienez, eskubideek ez dute preskribatzen, nahiz eta eskubideoi uko egiteko prest dauden sektoreak egon. Autodeterminatzeko Eskubidea (A.D.E.) daukagu, nahiz eta hori axola ez dien edo horri uko egiten dioten euskal herritarren sektoreak egon.

Euskal Herria-Espainiar Estatuaren gatazkaz mintzatzean, aldeak alde, Errusiar eta Txetxeniarren gatazkaz mintzo garenean bezalaxe mintzatzen gara, zentzu orokorrean; badirela jakinez txetxeniarrei beren autodeterminazio eskubidea eta bizi-eremu eskubidea gogoz ezagutuko lieketen errusiarrek; baita eskubide horri uko egingo lioketen txetxeniarrek ere, aurreko egoera erosoagoa zitzaielako edota gerraren sufrimendua ekiditearren. Honek ez du ukatzen Errusiar eta Txetxeniarren auzia subiranotasun gatazka denik eta, orokorki hitz eginez, alde batean Errusia eta bestean Txetxenia daudela. Eta onartezina litzateke txetxeniarren arteko gatazka dela esatea, onartezina den moduan gure gatazka hau ere euskaldunen artekoa dela esatea.

Sektore handi batek komunitate bereiztua izatearen kontzientzia du baita autodeterminatzeko borondate politikoa ere.



Autodeterminazio

eskubidea.

Bizitzeko eskubidea.

Giza eskubide indibidualak eta kolektiboak.

Auzi honen konponbidea pertsonen gizabanako-eskubideak (eskubide indibidualak) eta herrien eskubide kolektiboak (herri eskubideak) errespetatzen etorriko da, eta, eskubide batzuek zein besteak ez badira bermatzen, ezin izango da bakeaz ezta ere demokrazia mintzatu. Argi eta garbi lerrokatu gara eskubide bien alde eta ez dugu mailaketarik egiten, zein ote lehen eta zein gero; gure iritzirako biak dira bermatu eta babestu beharrekoak. Bizitzeko eskubidea funtsezko eta lehentasuneko eskubidea bada, Autodeterminazio Eskubidea (A.D.E.) herri batek duen bizitzeko eskubidea da.

Bakezale izendatzen diren zenbait erakundek "pro vita" elkarteak dirudite gehiago, bizitzeko eskubidearen defentsa absolutu baktzat hartuz eta eskubide hori borroka armatuaren kontrako -eta bide batez hark jomugatzat dituen helburuen kontrako- arietetzat erabiliz. Izatez, botereak horretarako finantzatu eta erabiltzen dituen erakundeak dira. Unibertsalki ezaguturiko legeek eta inolako progresismo susmorik gabeko zenbait instituziok bizitzeko esku-



bideari buruz diotena gogorazi nahi dugu bide batez. Zuzenbide Penalean "bidezko defentsarako eskubidea" ezagutzen zaio eraso jasaten duen pertsonari, nahiz eta bere buruaren defentsa horretan beste pertsonaren heriotza eragin; eta, hedaturaz, Nazioarteko Zuzenbidean ere herrien jarkiera-eskubidea jasotzen da erasoaren aurrean (nork uka diezaieke bosniarrei, adibidez?). Gogoratu, baita, tiranizidioaren aldeko edota armadak existitzearen aldeko Elizaren jarrera (eta zertarako ote armadak, hiltzeko ez badira?), hala nola "gerra justu eta injustuen" artean egiten duen bereizpena.

Bizitzeko eskubidea funtsezko eta lehentasuneko eskubidea bada, Autodeterminazio Eskubidea (A.D.E.) herri batek duen bizitzeko eskubidea da.

1. Euskal Herria - Espainiar Estatuaren arteko gatazkaren analisisa.



Herriek beren eskubideak berreskuratu eta injustiziak ezabatzen diren neurrian, armak isildu egiten dira.

Beraz, sistemaren legeek eta instituzioek eurek erlatibizatu egiten dute bizitzeko eskubidea auto-defentsa, tirania eta zapalkuntza egoeretan.

Biolentzia erabiltzeaz.

Biolentzia erabiltzea eta jarkitzeko eskubidea egoera jakin batzuetan justifika badaitezke, egoera horiek desagertzen diren neurrian, biolentzia erabiltzeak bere zentzua galduko du. Herriek beren eskubideak berreskuratu eta injustiziak ezabatzen diren neurrian, armak isildu egiten dira. Konbentziturik gaude Euskal Herria ez dela salbuespen, eta A.D.E. eskuratzeko bideak irekitzen dituzten neurrian, inposaketaren ordezkariak ekartzeko kapaz diren neurrian eta logika militar-polizialaren ordezkariak zibila, bi-

zitzeko eskubidea denontzat bermaturik egongo da. Bi eskubide horiek ez dute bata bestea baztertzen eta zeharo konbentziturik gaude A.D.E. -ak gizabanakoen bizitzeko eskubide indibiduala zein herri honen bizitzeko eskubide kolektiboa bermatzen duela. Oso tera, bizi-eskubideak edo arrazoi politikozko heriotzarik ezak ez du bermatzen berez A.D.E., ezta, beraz, bakea.

Ikusten dugu badirela A.D.E. lortzearren hiltzeko edo bizia emateko prest daudenak, baita badela jende asko A.D.E. hori ez gauzatzearren hiltzeko edo bizia emateko prest daudenak ere, eta horregatik, zenbaitetan, bizitzeko eskubidea eta A.D.E. aurkako edo elkartezintzat ager daitezke. Eta dinamika horretan, ekintza bortitz jakin batzuen gaitzespen edo justifikazio jarrerak azaltzea galdatzen zaigula ematen du sarri askotan.

Biolentzia erabiltzearen gaitzespenei buruz.


Gaitzespen edo arbuiapenei dagokienez ez gatoz bat, zeren eta sarri askotan BAKEA bilatzeaz landako asmoak ezkututzen baitituzte.

Gaitzespen askoren atzean (ia beti gaitzespenok ETaren kontra zuzendu ohi dira, eta ez biolentzia instituzionalaren aurka), egiatan haren xedeak -autodeterminazioa, lurralde batasuna...- kriminaltzeko asmoa ezkututzen da.

Konbentziturik gaude "gaitzesle" horietariko askok benetan ikarra eta izua ematen diena -autodeterminazioa- kriminaltzeko erabiltzen dutela ETaren gaitzespena.

Horrela, bikaintasun moralaren itxurak eginez, geruza etiko-moralisten azpian, gaur egungo "status quo" politikoa defendatzen dute sakon-sakonean, gatazka bere horretan mantentuz azken batez. Kontrairaultzaren agenteak besterik ez dira egiatan.

Beste gaitzespen askoren atzean biolentzia instituzionala legitimatzeko asmoa egon ohi da (dispertsioa, heriotzak, torturak, GAL...). Alderdi batekoen heriotzek "gehiegikeriak" justifikatuko lituzkete, zeren eta haientzat biolentziaren monopolioa Estatuaren jabego baita. Zilegizko biolentzia bakarra Estatuarena litzateke. Eta



zergatik hori?: hargatik, lege naturalez.

Beste gaitzespen mota batzuk.

Halaber, bortizkeria guztien salaketa etiko eta zintzoa egiten duten pertsonen berri eduki badugu. Hauek bortizkeria instituzionala zein erantzuneko konparatzerakoan, nahi gabe, Estatuaren alde jartzen dira eta nahasketa bultzatzen dute oinarritzko bortizkeria, herri honen bortizkeria guztien oinarria, hain zuzen ere, A. D.aren ukapen bortitza baita, eta honek gainerako guztiak eragiten ditu.

Gaitzespen askoren atzean, egiatan haren xedeak (autodeterminazioa, lurralde batasuna...) kriminaltzeko asmoa ezkututzen da.

1. Euskal Herria - Espainiar Estatuaren arteko gatazkaren analisisia.

Gaitzespenen baliagarritasunaz.

Eta gaitzespenok ez direla <<praktikoak>> diogu, izan ere, hainbat urteren ondoren ez dira izan baliagarri bakebidean aurrera egiteko, baizik eta posizioak are gehiago enkistatzera bultzatzeko. Badira <<gaitzesle>> profesionalak, irtenbideren bat bilatzeko ahaleginetik libre geratzeko aitzaki

duzenak gaitzespena. Gaitzespenaren zenbait profesionalak egiten duen ahalegin intelektual eta personal handiena horixe da, hain zuzen: egunkari-izenburuan jartzeko hitz zorrotz eta arranditsuena bilatzea. Guretzat jarrera praktikoenena, dena delako ekintza bortitzen aurrean, gaitzespenak ekiditea eta ekintza bortitzei bidea behingoz itxiko dien gakoa elkarriketa dela erakustea litzateke.

Badira "gaitzesle" profesionalak, irtenbideren bat bilatzeko ahaleginetik libre geratzeko aitzaki dutenak gaitzespena.




Euskal gatazka eta demokrazi defizita.

Demokrazia formala eta gatazka.

Demokrazi defizita beharrezko baldintza da gatazkak bere hartan iraun dezan, baina ez da baldintza nahikoa. Ez da nahikoa, zeren horixe baitira erregimen ez hain demokratikoak, baina honelako erantzun-biolentzia gogorrik jasaten ez dutenak. Faktore biren menpean dago funtsean: eraso-mailaren arabera eta erreakzio eta erantzun-ahalmenaren arabera. Baina bai bada beharrezko baldintza, zeren eta ziur baikaude gizabanako-eskubideak zein eskubide kolektiboak errespetatzen dituen egoera demokratiko ideal batean (horrelakorik baldin bada) ez legokeela biolentzia hori. Hau ez da funtsik gabe egindako baiezipen bat, baizik eta honako hausnarketa honen ondorioz: erantzun-biolentziak aurretiko biolentzia bat suposatzen duela eta, azken hau desagertuz gero, ez legokeela hura emateko arrazoirik.

Herrienganako eta bakearekiko begirunea.

Mundu mailan bai ematen dela eskubide kolektiboak errespetatzearen eta biolentziarik ezaren arteko erlazioa. Kanada-Quebec edo Txekia-Eslovakia bezalako su-



biranotasun gatazketan, soluzio zibilizatuei bide eman eta eskubide kolektiboak praktikan jartzea eragotzen ez den kasuetan, biolentzia ez da inondik ere ageri. Horrexek garamatza baieztera aurretiko biolentzia instituzionalik gabe ez dagoela erantzun-biolentziarik ere. Egiatzapen hori unibertatsala da eta gure Herriari ere aplikatuko da, beraz.

Defentsazko biolentzia.

Ez gara itzuliko goian aztertutako aldi historikora, baina bai nabarmenduko dugu Gerra Kaslistak, Gamazada, Gerra Zibila edota ETAren sorrera bera ere kanpotiko beste biolentzia handiago bati aurkaturiko defentsazko biolentziatzat bizi izan dituztela euskal herritarrek. Honako zentzu honetan defentsazkoa: beren eskubideei, kulturari edo bizikerari egindako

Eskubide kolektiboaren errespetu eta bortizkeriaren gabeziaren arteko harremana egon badago.

1. Euskal Herria - Espainiar Estatuaren arteko gatazkaren analisisia.

erasoaren aurrean defendatzea, alegia.

Eskubide demokratikoak eta Estatu espainiarra.

Baina hemen eta orain gertatzen dena interesatzen zaigu guri. Estatu demokratikoa al da gaur egungo Est. Espainiarra? Ahalbidetzen al du marko honek aukera demokratiko guztiak gauzatzea? Ezetz uste dugu, uste osoz. Ez forma aldetik, ez edukin aldetik.

Subiranotasunaren aukera, auziaren gunea dena, adieraz daiteke publikoki eta antolatu politikoki, baina ezin daiteke inola ere gauzatu. Alderdi independentistak xedetzat berba hutsa duten neurrian toleratzen dira, baina argi dago aukera hori defendatzen dutenak ez daudela adierazpen edo teoria hutsetan gelditzeko, baizik eta horiek gauzatzeko.

Eta gauzatze horretarako traba Konstituzioa bera da hain zuzen, ondorengo legeria guztia ondo lotuta uzten duena eta subiranotasunaren gordailuzain "Espainiar Aberria" ezartzen, bere VIII. artikuluan Armada izendatuz aberri horren batasunaren bermatzaile. Halako bermatzailearekin, nor mintzo daiteke euskaldunentzako demokraziaz? Baliteke euskal herritarren %90a alde duen akordioa lortzea (eman dezagun) eta armadak legea eskuan duela zanpatzea hautapen hori, normaltasun kons-

tituzionala hautsi ere egin gabe.

Baina bada amarru gehiago ere. Penintsulako euskal herritarren %32ak baizik ez zuen eman Konstituzioaren aldeko botoa, hirutik batek, baina Estatuaren barneko multzoan euskaldunak gutxiengoa direnez, hura onartutzat eman zen eta guzti-guztiori ezartzen zaigu. Demokrazia al da hori euskaldunentzat? Eta demokrazia baten ezaugarri formala hautes-tontzietako emaitza errespetatzea baldin bada, nola izan daiteke OTANen erreferendumean, euskal herritarretariko bik ezetza eta batek bakarrik baietza eman eta gero, hura denoi ezartzea? Ez garela-ko aurkitzen euskal herritarrentzako erregimen demokratikoan.

Marko hau aski demokratikoa denentz bertako instituzioetatik lan eginda aurrerapausoak eta al-daketak lortzeko, hori ez dago indarreango demokrazi maila handiago edo txikiagoaren arabera, baizik eta aukera pertsonal, politiko eta koiunturalen arabera. Diktadura ankerrenetan ere egin daiteke lan, eta lan egin da, barrutik. Hori ez da funtsezkoa, baizik eta gaur egungo Konstituzio espainiarrak euskaldunen subiranotasun aukera, beste edozein aukera bezain demokratikoa, gauzatzea eragozten duela; eta gure lana, beraz, ez dela biolentziak justifikatzen edo gaitzesten jardutea, baizik aukera guztientzako justizi eta berdintasun markoa -eta horrela biolentzia beharrezko ez izatea- ahalbidetzea.

Estatu demokratikoa al da gaur egungo Est. Espainiarra? Ahalbidetzen al du marko honek aukera demokratiko guztiak gauzatzea?



Euskal Herria biolentziaren aurrean.



Galdera eta erantzun interesatuak.

Honako galdera hau egin diezagukete: ea euskal herritarren gehiengoak helburu politikoak lortzeko biolentziari uko egiten ez ote dion. Galdera honek, interesatua izateaz gain, ez dauka erantzun bakar bat.

Galdera horri askotariko jendeak erantzun liezaioke baidetz: hasi bortxatzaile batek, zein 50 langile kaleratu dituen enpresari

batek, zein Lasa eta Zabala erahil zituztenek -hau da, hertsiki politikoak ez diren beste biolentzi mota batzuk erabili ohi dituztenek-, eta baita pertsona guztiz <<arrunt>> ere <<baketsuek>> ere.

Baietz erantzungo lukete, halaber, biolentzia Estatuaren monopolioztat daukatenek eta beren xede politikoak erdiesteko hura erabili ohi dutenek. Casinello Jeneralak bezala, Erregio Militar honetako Buruak ("nahiago dut gerra KAS alternatiba baino". Edo Poli-ziaren Sindikatu Bateratuak

Inork ez dio uko egiten bortxatzeriari helburu politikoak lortzeko.

1. Euskal Herria - Espainiar Estatuaren arteko gatazkaren analisia.



Bortizheria politikoak Estatuaren bortizheriaren monopolioa. "bortizheria legala" zalantzan jartzen du eta halaber, beronen bidez lortutako helburu politikoak kuestionatu egiten ditu.

("Amedok hildakoek ETAK hildakoek baino nahikoa nahigabe gutxiago eman digute") Edo Buesa Hezkuntza Buru ohiak ("praktikoa goa da ingeles ikastea euskara baino"). Edota OTANen eta Golko Gerraren alde azaldutako Ardanzak. Horiek guztiok esango lukete ez dela zilegi helburu politikoak biolentziaren bidez erdiesatea, helburu horiek beraienak izan ezean, jakina.

Beharbada horietariko batek ere ez du inor hil zuzenki, baina defendatzen duten eta onura ema-

ten dien sistema gorpu pila baten gainean oinarritzen da egunez egun. Sistemak lan merkatutik landa utzi dituelako beren buruaz beste egiten duten langileak; ezkutuko abortuak egitearren hiltzen diren emakumeak; estaldura politiko-soziala duten narkotrafikatzaileek hornituriko drogen eraginez hildako heroinomanoak eta abar. Eta horrela ehundaka. Hortxe dira Hirugarren Munduan egunean-egunean gosez hiltzen diren mila-ka ume, produkzio-tresnek plane-tako bizilagun guztiak soberan hornitzeko beste garaturik egon arren; gure mendebaldeko ongizate eta konfortak miseria gorrian, gosean eta gerran hondaturiko milioika pertsona behar dituenean, Sistema honen kontra gaudenok ere <<biolentzia natural>> honen orritsean eskuhartzen ari gara.

Sistemaren biolentzia.

Hori haritik kanpo irtetea dela esango zaigu, hemen biolentzia politikoaz hitz egin behar dela eta ez bestelakoez, baina azken horrek ez du eragiten lurralde honetan gertatzen diren heriotz bortitzen %5tik ere. Hain portzentaia baxuak horrenbesteko garrantzia hartzen badu, biolentzia politikoa Estatu-biolentziaren monopolioari, "legezko biolentziari", aurkatzeko zaiolako eta azken hauxe erabiliz erdietsi diren helburu politikoak zalantzan jartzen dituelako da.



Zelan izan daiteke Ardanza zeharo suminduta agertzea Ortega Lararen bahiketagatik eta aldi berean milaka eta milaka irakiar basamortuan bizirik lurperatu zituen gerra hura bultzatzea? Erraza da: bahitzaileek "bere" biolentziari aurkatzeko zaizkiolako eta gerra hark, oster, "bere" petrolio, "bere" ongizatea, "bere" klase-gaitentasuna eta, azken batez, "bere" helburu politikoak defendatzen dituelako.

Halaber, galdera hari baietz erantzungo lioketen artean, biolentzia instituzionaletik onurarik atera ez arren eta haren zigorra noizbait jasan arren ere, Estatuak biolentziaren monopolioa edukitzea <<berezkotzat>> dutenak daude. Halaxe hezi baikaituzte, he-

zi ere, men egitera, beste batzuek "pernada"-eskubidea berezkotzat onartzera edota erregeak Jainkoaren izendapenez direla errege onestera hezi zituzten bezala.

Horrela, bada, erlatibizatu egin beharko litzateke gai honi buruz gehiengoz eta gutxiengoz hitz egitean, eta, horrela formulatuta, erantzun egoki bakar bat dagokiolako kontuan hartu, gure eguneroko jarrerak gero zeintzuk izango diren aparte utzita. Biolentzia unibertsalki eta denon aldetik erabilia dela egiaztatzen dugu, bakoitzak bere helburu politikoak lortzeko edo mantentzeko. Errealitate hori ikusi nahi ez izatea hipokrisi jarduera argi bat besterik ez litzateke, gatazken konponbideari ezer gutxi laguntzen diona.

Egiaztatu egiten dugu helburu politikoak lortzeko edota iraunarazteko bortizkeria unibertsalki eta denon partetik erabiltzen dela.

ERANSKINA

ESPAINIAKO KONSTITUZIOA.

2. ART.

Konstituzioa espainiar guztien aberri komun eta zatiezina den Espainiar Nazioaren batasun banezinean oinarriturik dago eta osakide diren nazionalitate eta erregioen autonomi eskubidea ezagutu eta bermatzen du, baita guztion elkarkidetasuna ere.

3. ART.

Estatuko hizkuntza ofizial espainiarra gaztelera da. Espainiar guztiek dute hura ezagutzeko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea.

8. ART.

Lehorreko armadak, Itsas Armadak eta Aire armadak osaturiko Indar Armatuek Espainiaren subiranotasuna eta independentzia bermatzeko eta haren lurralde osotasuna eta ordenamendu konstituzionala defendatzeko eginkizuna daukate.



GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA.

1.1 Art.

Herri guztiek dute libreki autode-terminatzeko eskubidea. Eskubi-
de horren bidez beren izango po-
litikoa ebazten dute libreki eta be-
ren garapen ekonomiko, sozial eta
kulturala eraikitzen.

1.2 Art.

Beren helburuak lortzeko, herri
guztiak balia daitezke libreki be-
ren aberastasun eta baliabide na-
turelez, hala elkarrekiko onuraren
printzipioan nola Nazioarteko
Zuzenbidearenean oinarrituriko
ekonomi lankidetzatik ondorioz-
tatzten diren betebeharren kalterik
gabe. Ezein kasutan ere ezingo da
herri bat bere hornibideez gabe-
arazi.

3.1 Art.

Itun honen barneko Estatu kideek,
autonomiarik gabeko lurraldeen
eta fideikomisoazko lurraldeen ad-
ministrazioa beren gain dutenek
barne, Libreki Autodeterminatze-
ko Eskubidearen egikaritza bult-
zatuko dute eta eskubide hori
errespetatuko Nazio Batuen Gutu-
neko xedapenen arabera.



berbategia

abc

AUTODETERMINAZIOA

Nazio Batuek beren sorreratik bertatik instituzionalizaturiko printzipioa. Herriek beren helburu propioak, gobernu-forma eta munduarekiko harremanak libreki ebatz ditzaketela esan nahi du.

Lurralde-gune bateko bizilagunek etorkizunerako beren status politikoa libreki erabakitzea.

AUTONOMIA

Estatuak bere osakidetzat duen lurralde bati, ezaugarri bereziak dituela eta, damaion deszentralizazio administratiboa, kudeaketa-maila batzuk luzatzen dizkiolarik, baina subiranotasuna eta, beraz, independentzi eskubidea ezagutu gabe.

KARLISMOA

CARLOSengandik, heriotzorduan tronua galdatu zuen FERNANDO VII.aren anaiarengandik, izena hartzen duen mugimendu politikoa. Mugimendu honek ondorio historiko handiak izan zituen Euskal Herrian. Gerrak: 1833-1839, 1848-1849, 1872-1876.

KONTZERTU

Estatuko Gobernuaren eta Autonomi Elkarte EKONOMIKOAK baten arteko akordioa, azken honek zergak bildu eta aurretiaz adosturiko zati bat bakarrik -Eusko Autonomi Elkartean "KUPOA" eta Nafarroan

"KONBENIOA" - transferitzen diolarik Gobernuari.

KONFEDERAZIOA

Ororen gaineko botere baten menpean biltzen diren Estatuak, bakoitzak bere gobernua mantenduz.

Konfederazioetan botere zentrala koordinazio-organismo batek osatzen du funtsean, honen erabaki guztiak -edo ia guztiak- Estatukideek aho batez hartu behar dituztelarik.

FEDERAZIOA

Zenbait herrik gobernubidetzat darabilen (Federalismoa) sistema, lurralde federatuek beren soberania zati bat damaiotelarik Estatu zentralari, beronen menpean geratuz neurri handiago edo txikiagoan.

Federalismoa: Boterea Estatu zentral baten eta federaturiko Estatu edo Lurralde ezberdinen artean banaturik aurkitzen den sistema politikoa.

Elkarte bakoitzak bere subiranotasunaren zati bat botere amankomunaren mesedetan lagatzea suposatzen du.

FORUAK

IX. mendearen hasieran hezuramaitzen hasten den Foru Erregimena. Pirinioan zehar hedatzen da, lurralde bakoitzean idatzira jasoriko usadio eta ohituretan oinarritu-

ta, 1716az geroztik Euskal Herriak soilik kontserbatuko dituenak. 1789ko abuztuaren 4an Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan abolituko dituzte. Azken eraispena GERRA KARLISTETAN gertatzen da, Abolizio Legeen erara.

GAMAZADA

Nafarroan zehar 1893ko udaberrietik 1894ko otsailera arte gertatu zen matxinadaren izena. Aldi horretan zenbait taldetxo armatu jarki ziren eta istilu larriak eragin zituzten Euskal Herri osoan. Gertakari erabakiorra izan zen mugimendu nazionalista eratzera iristeko.

INDEPENDENTZIA

Nazio batek (etnia, aberri, erregio edo dena delako izenez deitu) bere burua gobernatzeko duen ahalmena edo subiranotasuna, beste Estatuen aldetiko presiorik gabe.

SUBIRANOTASUNA

Botere politikoa herriak berak egikaritzea, Subiranoaren edo Monarkiaren ideia klasikoari kontrajarria.

Botere publikoaren aginte gorena.

Herrian datzana eta herriaren ordezkari diren organo konstituzionalek egikaritzen dutena.

ariketak



Euskal Herria -
Espainiar Estatuaren
arteko gatazkaren
analisi.

MODULUAZ GALDEKETA

1.- ZEIN DA EUSKAL GATAZKAREN JATORRIA?

2.- EUSKALDUNEN ARTEKO GATAZKA AL DA?

3.- ZILEGIZKO AL DA BIOLENTZIA ERABILTZEA?

4.- ZEIN OTE LEHENAGO: BIZITZEKO ESKUBIDEA ALA AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA?

5.- AMAITUKO AL DA BIOLENTZIA AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA LORTUZ GERO?

6.- IRITSI AL GAITEZKE EUSKALDUNOK AUTODETERMINAZIO ESKUBIDERA GAUR EGUNGO KONSTITU-
ZIOAREKIN?

7.- BORROKA POLITIKOKO OHIZKO TRESNA AL DA MUNDU MAILAN BIOLENTZIA?